

EDITORIALA

Sasi biderik ez

Lan harremanen esparrua beti izan da gatazkatsua, definizioz interes kontrajarrien eremua baita. Klaseko interesak daude jokoan eta enpresariak eta langileak, indar korrelazioaren arabera, bakoitzak bere aldera tiratzen du euren interesak defendatu edota hobetu nahian. Hau horrela izan da eta aurrerantzean ere holaxe izango da. Testuingurua, ordea, aldatu da, nabarmen aldatu ere. Erabaki politikoz inposaturiko azken erreformek orain arte zeuden oreka apurrak bertan behera utzi dituzte eta lan harremanetan enpresariaren interesak gailentzeko bide guztiak ireki dira.

Beste eremuen gaintik enpresako konbenioaren aplikazioa lehenestea helburu hori du. Patronalak badaki enpresaren eremua ahulagoa izan daitekeela langileontzat bere eskubideak defendatzeko eta hobetzeko, bereziki indar korrelazioa eta antolakuntza kolektiboa ez dagoen tokietan. Aginte politikoak men egin dio patronalari eta eskura jarri dio oparia. Baina ezin ukatu euskal eremuan sindikalizazioaren errealitatea bestelakoa dela eta patronalaren asmoei aurre egiteko enpresaren konbenioan bertan aritzeko aukerak ditugula. Beraz, enpresa eremua da joko eremu nagusia, ezinbestekoa. Eta hau ez da guk erabaki dugun zerbait, kanpotik ezarritako baldintza baizik.

Ez dago, haatik, itsuarena egiterik eta errealitate honi bizkar eman. Lan baldintzak enpresetako hitzarmenetan bermatzea ez da lan erraza ez eroso baina, lege aldaketa dela eta, honek bakarrik ziurtatuko digu gure lan baldintzak defendatzea. Horren harira lerrokatu behar ditugu langileak antolatu eta borrokarako presta daitezen. Lurraldetako hitzarmenak erreferentzia hutsa bilakatuko dira denboran zehar eta eragin-kortasuna enpresetakoan izango da. Egokiena horretarako prestatzea lehen baino lehen. Erreformari enpresetako ateak itxi behar dizkiogu eta deitzen ditugun mobilizazioak eta grebak helburu hori behar dute izan.

Eskualde batzarrak, asanbladak enpresetan, mobilizazioak, kanpaina informatiboa, Gutun Sozialaren aurkezpena...

GIROA BEROTZEN #M30GREBA -RI BEGIRA

Maiatzaren 30eko greba orokorra hurbiltzen ari den neurrian agerikoa da giroa berotzen ari dela. Sindikatuak –kasu askotan deialdia babesten duten sindikatu eta gizarte eragileekin elkarlanean– maila guztietan daraman agenda estua horren lekuko argia da. Eskualde guztietan batzarrak egin dira –milaka lagunek hartu dute parte bertan–; datozen egunetarako asanbladak antolatu dira ehunka enpresatan; egunero daude mota guztietako mobilizazioak han eta hemen; ELAK prestatu dituen informazio agerkari ezberdinak zabaltzeko kanpaina erraldoia; Gutun Sozialaren aurkezpena maiatzaren 22an...

ELAko idazkari nagusi Adolfo Muñozek sindikatuko kide guztiek egiten duten lan militante hau goraiatu nahi du. “Lan ikaragarria egiten dute gure militanteek greba aurrera ateratzeko. Balio handia eman behar zaio grebaren prestaketa lanari”.

“ELAko kideok milaka asanblada egin behar ditugu greba aurrera ateratzeko. Asanblada horiek prestatu egin behar dira, aurrera eramanez, argudiatu, bozketa egin eta irabazi. Politizazio lan horrek izugarriko balio dauka, grebaren arrakasta lan horren fruitua baita”.

GREBA GIZARTE PROZESU BATEN BARNEAN

“Horrek guztiak –gaineratzen du Muñozek– izugarriko ahalegina exijitzen die sindikatuko militanteei, egunero baitaude enpresa itxierak, konkurtsoak, manifestazioak, grebak –askotan mugagabeak–... eta gainera, greba orokorra ateratzeko esfortzu ikaragarria eskatzen du”.

Greba orokorraren prestaketa lan hauetan datozen egunetan egongo diren mobilizazioetan parte-hartzearen garrantzia azpimarratzen du ELAko idazkari nagusiak.

“Mobilizazio guztiak dira garrantzitsuak, noski, baina maiatzaren 25ean ezinbestekoa da antolatu diren manifestazioetara joan eta gure ahotsa ozen entzutea. Greba gizarte prozesu baten barnean kokatu behar da, epe luzerako prozesu bat, eta bide horretan egiten ari garen lana txalotu beharra dago”.



Helburua egungo politiken aldaketa lortzea da **EUSKAL HERRIKO ESKUBIDE SOZIALEN GUTUNAREN ALDE**

Maiatzaren 30eko greba orokorraren aurkezpenean deitzaileek argi utzi zuten *Eskubide sozial eta laboral duinak* lelopean egiten den deialdia urrats berri eta garrantzitsu bat dela Hego Euskal Herrian prozesu sozial oso bat bultzatzeko borrokan. Maiatzaren 22an bide-orri horren lehen pausoa aurkeztuko da: *Euskal Herriko eskubide sozialen gutunaren alde* egitasmoa. Helburua, argia: egungo politiken aldaketa lortzea.

Gutun hau aldarrikapen bitartekoa izango da, baina ez hori bakarrik. Gutun hau lehendabiziko pausoa izango da euskal jendarte osoaren indarrak batzeko eta burutzen ari diren borroka ezberdinak helburu argien inguruan bateratzeko. Eskubide sozial eta laboraletan zein justizia sozialean oinarritutako eredu nahi eta behar dugu. Guzti horregatik, Euskal Herriarentzat eredu propioa eraikitzeke prozesua abiaraziko digu.

MOVILIZACIONES EL 25 DE MAYO

Preparar una huelga general requiere mucho esfuerzo y dedicación; en definitiva, muchas horas de trabajo militante. Para percatarse de esto no hay más que fijarse en la agenda que, con motivo de la huelga del 30 de mayo, han preparado los sindicatos y agentes sociales que la secundan. No hay día sin movilización. Sin embargo, las manifestaciones previstas para el sábado 25 de mayo cobran vital importancia.

Para ese día se han organizado manifestaciones en las capitales de Hego Euskal Herria. El objetivo será llenar las calles y mostrar el apoyo a la huelga. Es imprescindible tomar las calles todos los días, pero las movilizaciones de 25 de mayo tendrán una especial importancia. Ese día tendremos otra oportunidad para dejar bien claro que exigimos otras políticas sociales y económicas.

Lankidetu!

ZERTARAKO BALIO DU GREBAK?



Greba orokor bat deitzen dugun aldiro gehien egiten den galdera zera da, erabilgarria ote den. Benetan lortuko al da greba honekin gobernuak hartzen dituzten erabakietan atzera egin araztea? Krisi uneotan lanuzte bat deitzea ez ote da mesede egitea produktio urria ateratzen ari diren enpresei? Ez al diote komunikabideek, kapitalaren edota gobernuen esku baitaude, ohiko erantzuna emango, protesta gutxietsiz?

Sarri izaten ditut gai honi buruzko eztabaidak militante sindikalekin; hauek hartzen dute beren gain borroka sozial, politiko eta sindikaleko eginkizunik zailena: lantokietan asanbleak deitzea; argudioak prestatzea; jendaurrean hitz egitea, norbere -ustezko-mugak gorabehera; lankideen gogo mugiarazten saiatzea; jendea mobilizazioetara joan dadin konprometitzea... Militante horiekin eztabaida zaila da, izan ere, beren zalantza, galdera eta konbikzioak konpromiso bustitako praxian sortzen baitira. Hartueman honek ikusarazi dizkidan ondorioak azalduko ditut, bada.

Nire iritzian, greba orokor bat aurrera ateratzen saiatzen direnek badakite errealitatea ez dela bapatean aldatzen; badakite gaitza dela egun bakarreko borrokaren poderioz gobernu bati atzera egin araztea. Haatik, militanteok uste dute greba egun bat berebiziko garrantzia duen uea dela borroken bilakaeran. Grebak eta erreibindikazio ekintzek nortasun kolektibo bat itxuratzen dute, "gu" bat, "haiek" bati kontrajartzen zaiona; kontrakotasun hau gabe ezin izango da beste agertokirik iritsi. Beraz, greba prozesu baten baitan ikusten dute, ez ultimatum edo hordago

gisa. Eta badakite gure lorpen guztiak mobilizazioaren eta grebaren emaitza izan direla.

ELAko eta LABeko militanteak, gainerako sindikatu eta mugimendu sozialetakoekin batera, 3.000tik gora asanblea egitekotan dira, lankide eta herritarren borondatea mugitzeko asmoz

Greba orokorrek konprometituta daudenek ez dute epe laburreko kostu-etekinen kalkulurik egiten. Noski, greba egun bat garesti gerta liteke soldata miserable bat duenarentzat; litekeena da iriztea greba deitzeko motiboak ez didala niri zuzenean eragiten. Grebaliaren kalkuluak, ordea, ez du zerikusirik horrekin: bere ustez, inor ez da ondo biziko jende asko eta asko txirotuta dagoenean. Horregatik, greba orokorra egiten dutenek politikan parte hartzeko eskubidea aldarrikatzen dute, eta uste dute zilegi zaiela, beste edozein ustezko adituri bezala, gizarteari komeni zaiona erabakitzea. Gainera, gizartearentzako irudikatzen duten alternatibak guztientzako lekua dago... Greba orokorrek grebaliaren politika beren esku hartzen dute, ozen eta argi esateko "besteek" diotena egia bada -hots, "ez dagoela alternatibarik"-, ez daukatela zentzurik gobernu aldatzeko, alderdiek, ezta demokraziak ere.

Greba orokorra egitea erabakitzen dutenak ez daude beren buruari begira. Mendez mende beste jende batekiko elkartasunak piztu izan ditu grebak, nazioen barnean zein mugaz gaindi. Greba orokorrek lagundu egiten ditugu beren duintasunaren alde borrokan dauden guztiak. Greba egiten duenak badauki zer den goizero barrikadan egotearen beldurra, zalantza, nekea... Greba orokorrek, horrenbestez, mezu indartsu bat ematen da: "zuek, egunero borrokatzen zaretenok, arrazoia daukazue, eta gizarte honetako kiderik hobereenok zarete". Greba orokorrek horrela aurre egin nahi dio ugazabak erabaki ditzaketen zigorrek eragindako beldurrari. Greba orokorrean isilarazi dituztenek, lan munduan beldurrez bizi direnek protesta egin dezakete pairatzen duten menpekotasuna, dependentzia eta esplotazioa salatzen. Hala ere, greba egunez enplegua dutenek deiadar egiten dute enpresetan bakerik ez dela izango guztiak lana izan arte, euren eta etxeko bizimodu bermatu arte.

Greba orokorrerako konpromisoa hartzen dutenek klase xeheen egoera bizitza sozialaren erdigunean kokatzen dute. Egun batez bereganatu egiten dute komunikabideek gizartearen agenda baldintzatzeko duten boterea, eta deiadar egiten dute: errealitatek larrienei lehentasuna eman behar zaie; gizartearen debatearen erdi-erdian guztientzako enplegu duina egon behar da, ez bankuen arazoak. Greba orokorrek orain eta hemen bideragarri diren alternatibak aldarrikatzen dira, gizarte zuzenagoa eta lan duinagoa lortu eta aberastasuna hobeto banatzeko.

Greba orokorraren alde eginez, alde batera "gu" gaude, eta bestera "haiek", egoera honen arduradunak. Honela gogora arazten dugu gertatzen zaiguna ez dela halabeharra. Gauzak bestelakoak izan daitezkeela, eta izan behar direla.

Greba orokorra, bestalde, garaiotan desobediencia ariketa bat da. Gaur greba egitea ez da borroka tresna konbentzionala, mendebaldeko legeetan babestuta egon arren ez baita benetako askatasuna, langile-klasearen zatirik handiena mehatxupean dagoenean: langabezia, prekariatatea, kaleratzeak...

Greba orokorra egiten dutenek kontzientzia-ziari dagokionez urrats erabakigarria egiten dute. Greba deitzea, arestian esan dudanez, hainbat lan hartzea da: prestakuntza eta argudioak eman, mobilizatu, jendea erakarri. ELAko eta LABeko militanteak, gainerako sindikatu eta mugimendu sozialetakoekin batera, 3.000tik gora asanblea egitekotan dira, lankide eta herritarren borondatea mugitzeko asmoz. Ez dago hau baino formazio politiko-sozial jarduera aberats eta handiagorik.

Amaitzeko, gogoeta bat: duela zenbait urte lehen-dakari batek enpresario talde hautatu baten belarriak gozatzeko bota zuen "zuek zarete herri honetako BPGaren %90a". Datorren maiatzaren 30ean, milaka langilek agintari eta patroiei gogora araziko diete mundua geuk egiten dugula; garbitu, irakatsi, zaindu, sendatu, zerbitzatu, eraldatu, eraiki, saldu, banatu, garraiatu... Aberastasuna askoren lanetik dator, eta lan nahikoa badagoenez, enplegua ere guztientzako adina behar dugu. Gora greba orokorra!!

Xabier Anza, ELAko prestakuntza arduraduna

Langileek hilabeteak daramatzate lan-erreformatik babestuko dituen hitzarmen baten alde borrokan

GREBA MUGAGABEA GIPUZKOAKO ZAHAR-EGOITZETAN

Gipuzkoako zaharren egoitzetako langileek greba mugagabea daude maiatzaren 13az geroztik. Sektorean ordezkariak duten bi patronalek -Adegi eta Lares- Espainiako lan erreforma aplikatu nahi diete langileei; horrek uztailetik aurrera lan-baldintzen kalte nabarmena eragingo lieke langileei, batez ere soldadak edo lanaldiak bezalako gaietan.

ELA sektorean duen arduradun Iñigo Zubeldiak orain arte egindako mobilizazioen garrantzia azpimarratzen du, eta langileen borrokari esker lortutako helburuak aipatzen ditu. "Gero eta gehiago dira sektorean enpresa-hitzarmenak sinatu dituzten egoitzak.

Akordio horiek, lan-baldintzen hobekuntza jasotzeaz gain, erreformaren aurka blindatzen ditu langileak. Gainera, akordio horiek agerian Adegi eta Lares patronalen eraginkortasun eza eta benetako ordezkari falta".

Zubeldiak iragan astean bertan lortutako bi akordio jartzen ditu adibide gisa. "Eulen Sociosanitario eta Zu eta Biok enpresetan akordioak lortu dira, Biharko enpresarekin lortu zenaren tankerako akordioa eta 750 langilerengan eragina duena. Akordio hauek, lortu diren beste batzuekin eta lortzear daudenekin batera, agerian uzten dute nor dabilen langileen lan-baldintzak hobetzeko akordioak lortu nahian eta nor

dabilen uneoro oztopoak jartzen. Gainera, kasu honetan aipatu beharrean gaude bai Eulen bai Zu eta Biok enpresak Adegiren kide direla".

ELAko ordezkariaren iritziz patronalari bost axola zaie langileen baldintzak. "Adegi eta Laresi ez zaizkie batere inporta langileen baldintzak. Patronalak prekariatatearen aldeko apustua egiten du. Irabaziak handitu nahi ditu langileen soldaten eta lan

baldintzen kontura, nahiz eta zaharren egoitzen finantzaketaren %87 Gipuzkoako Foru Aldundiak jarri".

Borroka honetan langileei inork ezer oparitu ez diela-eta, Zubeldiak orain arteko bidetik jarraitzearen borondatea berresten du. "Gipuzkoa osotik ari gara mobilizatzen, elkarretaratzen eta kanpaldien bidez. Ez dugu etsiko Gipuzkoako zahar-egoitza guztiak akordio duin bat izan arte".

Las trabajadoras de las Residencias de Gipuzkoa continúan en huelga indefinida en defensa de un convenio que les blinde de la reforma laboral

ELA descalifica el Plan de Empleo presentado por el Gobierno Vasco y propone alternativas

11 PROPUESTAS PARA CREAR EMPLEO DE CALIDAD



El número de personas en las listas de los Servicios Públicos de Empleo en Hego Euskal Herria es de 233.033 –datos de abril–. No sólo las cifras de desempleo son alarmantes, también lo es la situación de quienes lo padecen. El 46,6% no cobra ninguna prestación por desempleo, y sólo el 32,9% lo hace en su modalidad contributiva. La gravedad de la situación ha llevado a ELA a elaborar y presentar una batería de medidas encaminadas a abordar el problema del desempleo. Las medidas son las siguientes:

1.- Aplicar políticas para crear empleo de calidad exige un cambio radical en las políticas presupuestarias y fiscales. Un aumento del gasto público es imprescindible, para lo cual se requiere también un giro radical en las políticas fiscales aplicadas en los últimos años. Es preciso recordar el déficit fiscal existente con la Unión Europea (2.000 millones al año en Navarra y 4.400 millones en la CAPV).

2.- Se debe desarrollar el sector público, en especial los servicios públicos que tienen que ver con el Estado del Bienestar. Es necesario aumentar el nivel de empleo público en sanidad, educación, servicios sociales, transporte, etc.

3.-Reducción de la jornada sin reducción de salario. Es necesario, además, abordar el reparto del trabajo, tanto del productivo como el del reproductivo.

4.-Aumentos de salarios por encima del IPC y niveles dignos de coberturas sociales. La creación de empleo también está relacionada con la capacidad de compra de bienes y servicios. Mejorar el poder adquisitivo de los salarios y de las prestaciones sociales contribuye a crear empleo, y a una más justa distribución de la renta.

5.-Un salario mínimo digno y establecimiento de una renta máxima autorizada.

6.-Modificación radical de la actuación de las entidades financieras. Es necesario revertir la bancarización de las Cajas de Ahorro (Kutxabank, CAN). Hay que reorientar la actuación del sistema financiero, para que se centre en la provisión de crédito a las familias y a las empresas, eliminando la especulación y prohibiendo las actuaciones que tienen que ver con la evasión de impuestos (incluidos los paraísos fiscales).

7.- Política industrial. Se debe garantizar la financiación (de inversiones, I+D+I o circulante) para las empresas que tienen un proyecto y producto con futuro. El Gobierno Vasco debería definir los sectores estratégicos y desarrollar planes concretos para su impulso. Son imprescindibles los proyectos y planes para impulsar sinergias entre empresas que ofrecen productos complementarios. También se requiere:

- Un papel activo de las instituciones para hacer labores de intermediación y obtención de capital para empresas cuyo futuro está en peligro.
- Ayudar y dinamizar los procesos de internacionalización de empresas.
- Poner en marcha planes concretos sobre empresas pequeñas y medianas.
- Abrir un proceso de reflexión sobre la inversión y desarrollo, teniendo en cuenta que hay que poner al servicio de la sociedad lo que se impulsa con dinero público.

8.- Impulso de los empleos verdes. Es fundamental el impulso de actividades sostenibles desde una perspectiva económica, social y medioambiental. Existe un gran potencial de empleo en actividades relacionadas con las energías renovables, la gestión y tratamiento de residuos, la regeneración de suelos, la agricultura ecológica, el control y prevención de la contaminación, etc.

9.- Dar marcha atrás en las reformas de pensiones aprobadas en los últimos años. Retrasar la edad de jubilación supone aumentar el paro en la gente joven.

10.- Mantenimiento del empleo. Es importante no permitir despidos por causas económicas, organizativas o de producción cuando las empresas están en beneficios o lo hayan estado en años anteriores.

11.- Desarrollo de un Servicio Público de Empleo potente y de un modelo de formación de calidad, que responda a las necesidades reales:

- ELA reclama un diseño propio, basado en las

necesidades sociales y económicas de nuestro territorio, e impartido por los centros de formación profesional homologados de reconocido prestigio.

- En relación a la intermediación laboral, ELA defiende que se haga mediante el Servicio Público de Empleo, abandonando el actual diseño de subvención y financiación de entidades privadas.

- Denunciar la transferencia de las competencias de empleo y formación, por su falta de capacidad de decisión y la pérdida económica que conllevan. La capacidad de decisión en materia de políticas de empleo (tanto las políticas activas como las pasivas) debe estar en manos de las instituciones vascas.

CONTINUISTA, INCONCRETO Y POCO CREÍBLE

Las propuestas de ELA contrastan con las presentadas en marzo por el Gobierno Vasco en su denominado Plan de Empleo. Un plan que, tras analizarlo en profundidad, ha sido definido por el gabinete de estudios de ELA como genérico, vacío en lo que a medidas y acciones concretas se refiere; continuista; cerrado a la participación; no realista; sin garantías de cumplimiento presupuestario; poco creíble en cuanto a cifras de creación y mantenimiento de empleo. Además, el Plan omite el papel del Gobierno Vasco como empleador y se ratifica en las políticas públicas de recorte que están provocando un aumento del paro.

ELA entiende que la presentación de este Plan de Empleo es una cuestión de imagen. “Mientras no se plantee un giro total de las políticas presupuestarias y de las políticas fiscales se van a seguir aplicando las recetas que nos llevan a más paro, más pobreza, más precariedad y más desigualdades sociales”.

No blindaría los convenios sectoriales y legitimaría a la patronal a seguir reduciendo salarios y condiciones en las empresas

ELA NO ESTARÁ EN UN HIPOTÉTICO ACUERDO INTERPROFESIONAL DE NEGOCIACIÓN COLECTIVA

ELA no cree posible un acuerdo interprofesional de negociación colectiva en la CAPV que salve los convenios vascos tras el fin de la ultraactividad, el próximo 7 de julio, en un contexto en el que la patronal quiere otra reforma laboral y logra lo que desea tocando la aldaba al Gobierno Vasco.

El próximo 7 de julio pueden decaer gran parte de los convenios de sector firmados en Hegoalde. Algunos defienden que un acuerdo entre patronal y sindicatos puede evitar ese escenario. ELA, sin embargo, estima que la patronal está intentando chantajear a sindicatos y trabajadores/as con la amenaza del fin de la ultraactividad para lograr convenios sectoriales a la baja, que serán aún más devaluados en las empresas. “La patronal utiliza el 7 de julio como amenaza para atraer a aquellos sindicatos cuya estrategia pasa solo por los sectores, con los contenidos que quiere la patronal”. “El bloqueo de la negociación colectiva que estamos viviendo es buena prueba de ello”, afirma el responsable de negociación colectiva, Joseba Villarreal.

ELA ha argumentado su rechazo a un acuerdo interprofesional de negociación colectiva también por razones de efectividad; es decir, blindaría a los convenios provinciales sectoriales respecto a los estatales pero no respecto a los de empresa, “y la caída salarial y la barra libre para los empresarios se va a producir ahí. Estamos dispuestos a firmar acuerdos, pero que vinculen”, insiste Villarreal.

Así las cosas, ELA ha adelantado ya al ejecutivo de Urkullu su postura contraria al acuerdo intersectorial auspiciado por el Departamento de Trabajo porque sólo sirve para dar legitimación social a la patronal, mientras reducen salarios y condiciones laborales en las empresas bajo la amenaza del miedo al desempleo.

LA CLAVE ES LA EMPRESA

Villarreal ha explicado que la alternativa de ELA a la situación en la que se encuentra la negociación colectiva tras la aprobación de la reforma laboral y de negociación colectiva es negociar en la empresa, el único ámbito donde realmente los trabajadores/as pueden blindar sus derechos. “Los que impulsaron esta reforma creen que el sindicalismo va a ser incapaz de adaptarse a la empresa. Ese es su objetivo, y ese es, precisamente, nuestro reto”. Además, –y a pesar de las dificultades de blindaje, ya que el convenio sectorial ha dejado de ser referencia mínima obligada– ELA intentará negociar convenios sectoriales en los términos de los cinco que ya ha firmado en los últimos meses (gasolineras de Bizkaia y Gipuzkoa, y Limpieza viaria, Transportes de Viajeros y Papel, de Gipuzkoa), con referencias salariales por encima del IPC, aumento de la ultraactividad y compromiso de aplicación.

Finalmente, el responsable de negociación colectiva ha afirmado que ELA está preparándose para la pelea porque el objetivo de la reforma laboral y de negociación colectiva no es otro que bajar salarios y debilitar la defensa colectiva.

José Luis Vidal, miembro de la mesa negociadora del metal de Gipuzkoa, valora la convocatoria de huelga del próximo 24 de mayo

“TENEMOS QUE PARAR LA REFORMA LABORAL EN LAS EMPRESAS”



Jose Luis Vidal, miembro de la mesa negociadora del metal de Gipuzkoa, se muestra convencido de que ELA va a ser capaz de adaptarse al nuevo escenario abierto en la negociación colectiva tras la reforma laboral de Rajoy. Vidal llama a participar en la huelga del metal de Gipuzkoa convocada para el próximo 24 de mayo. “Tenemos que tener claro que si bien el convenio provincial es una referencia el convenio de empresa es una necesidad imperiosa. Si queremos

neutralizar las sucesivas reformas laborales no queda otro camino que profundizar en la consecución de convenios de empresa con cláusulas legales de blindaje”.

-¿Cuál es la posición de ELA en la negociación colectiva del metal de Gipuzkoa?

-Uno de los aspectos más importantes de la reforma laboral de Rajoy es “el principio de la prioridad aplicativa del convenio de empresa”. Por tanto es ahí, también, donde se negocian los salarios, la jornada y el resto de las condiciones laborales. Hasta ahora el convenio sectorial era un mínimo de obligatorio cumplimiento, pero con la reforma se ha producido un cambio esencial y será la empresa el escenario donde se van a negociar nuestras condiciones laborales.

No podemos ignorar tampoco que la anterior reforma laboral, -pactada por CCOO y UGT con Zapatero en el 2011-, impuso la prevalencia de los convenios estatales sobre el convenio provincial. Así pues, por arriba y por abajo, se vacían los convenios provinciales.

En este contexto nuestro objetivo prioritario tiene que ser que la reforma no entre en las empresas y el

mantenimiento del poder adquisitivo de los salarios. Nos obliga a otorgarle una importancia vital al convenio de empresa.

-Para el 24 de mayo se ha convocado una jornada de paro. ¿Qué opinión le merece a ELA?

-La huelga del día 24 de mayo debe ser un paso más en ese camino de fortalecer la negociación colectiva en las empresas. Tenemos que tener claro que si bien el convenio provincial es una referencia el convenio de empresa es una necesidad imperiosa. Si queremos neutralizar las sucesivas reformas laborales no queda otro camino que profundizar en la consecución de convenios de empresa con cláusulas legales de blindaje.

La convocatoria de huelga en el sector del metal de Gipuzkoa del día 24 de mayo debe servirnos, pues, para profundizar en esa vía. ELA convoca a la huelga a todas aquellas empresas donde las reformas laborales no han sido neutralizadas por medio de convenios de empresa con cláusulas legales de blindaje. En más de 60 empresas metalúrgicas de Araba, Gipuzkoa y Bizkaia se han alcanzado estos objetivos y en las próximas semanas vamos a seguir con esta estrategia que ya está dando sus frutos.

LABURREAN / BREVES

● Firmado el convenio de Pesa Bizkaia

ELA y LAB han llegado a un acuerdo para la firma del convenio de empresa en Pesa Bizkaia, concesionaria de varias líneas de Bizkaibus. ELA, sindicato mayoritario en el comité de empresa con cinco representantes, valora positivamente este acuerdo que afecta a más de 200 trabajadores y trabajadoras. El acuerdo tiene dos puntos principales muy importantes. Por una parte bloquea la reforma laboral, consiguiendo ultra-actividad indefinida del convenio e introduciendo cláusulas que blindan el convenio para que no pueda ser inaplicado de manera unilateral por parte de la patronal, entre otros blindaje.

jes. Por otra parte se recogen subidas de IPC, con lo que los trabajadores y trabajadoras mantendrán el poder adquisitivo.

● Aianox se blindará ante la reforma laboral

ELA valora muy positivamente la firma del convenio de empresa en Aianox. Hasta ahora las condiciones de trabajo venían reguladas por un pacto de empresa vinculado al Convenio Provincial del metal de Araba. Ahora, con la firma de este convenio de empresa que contiene cláusulas que limitan los aspectos más lesivos de la reforma laboral, la plantilla consiguen blindar sus derechos mejorando aspectos como la ultra-actividad, las cláusulas de inaplicación de convenio, y de la flexibilidad.

● Murrizketak EITBn

EITBko zuzendaritzak murrizketak iragarri ditu Eusko Irratian -bera baitan Euskadi Irratia, Radio Euskadi, Radio Vitoria, Euskadi Gaztea eta EITB Irratia biltzen dira-. ELAk langileen %15arengan eragina izan dezaketen murrizketa hauek salalatzeko, eta, propagandaz haratago, enpleguaren alde benetako apustua egitea exijitzen dio Jaur-laritzari.

● LOMCeren aurkako ikastetxeetako klaustroen atxikimenduen bila

ELA, STEE-EILAS eta LAB sindikatuek proposamen berria luzatu diete ikastetxeetako klaustroei: LOMCeren aurreproiektuaren aurrean euren salaketa-adierazpena egin dezaten eta Eusko Jaur-laritzari interpelazioa luzatu die-

zaioten. Helburua LOMCeri “ez” esatea eta halakorik gauzatuko balitz hemen ez aplikatzeko eskaera egitea litzateke. Honekin batera, ELAK langileon lan baldintzei buruzko benetako negoziazioa, konpromisoak eta bermeak bidera ditzan exijitzen dio administrazioari.

● Epaitegietako langileak ekiharazioaren eske

Epaitegietako langileek manifestazioa egin zuten maiatzaren 15ean Bilbon, ELA, LAB, CCOO, CSIF, UGT eta CGT sindikatuek deituta, euskal administrazioko lan baldintzekiko berdintasuna eskatzeko. Epaitegietako langileek administrazioko gainontzeko langileek baino ordu gehiago lan egiten dute. Honen harira, maiatzaren 20an bi ordutako geldialdia egingo dute lan baldintzen berdintasuna eskatzeko.

www.ela-sindikatu.org / @ELAsindikatu / ELA-Facebook

ELA **astekaria**

Barrainkua 13, Bilbao
Tel. 94 403 77 00
Fax 94 403 77 66

Dep. legal BI-199-00

www.ela-sindikatu.org

**Franqueo concertado
nº 08/207**